

ERRENDITUEN AKORDIOA

Iruña (2005.6.22)

“Akordioa” nondik nora borobiltzen dabilta. Horrekin borroka bukatu eta politika egiteko garaia heldu dela esaten ari dira. Inperialistek herriko klase politikoak amore ematea lortu dute. Nazionalista inperialistak ipinitako bideari bide politikoa deritzote. Inperialismoari bakea deitu nahi diote. Herriko klase politikoak inperialisten bide politikoa bide bakarra dela azpimarratzen digu. Noski, hemengo klase politikoak “akordioa” sinatzekotan, hori dena eta gehiago onartu beharrean daude, ez baitu apustu galtzaileak baldintzak ipintzen. Herria, ordea, ez dago horrelakorik onartzeko prest. Herria indarra da, eta herriak bere indarra klase politikoak horrela erabili izanari iruzurra deritzo. Guk lehengoa eusten dugu, hau da, indarra erabiltzeari. Geuretzat ez da oraindik abian jarri, bakera eramango gaituen, bide politikorik. Politika zer den urteren poderioz ondo ikusi dugunok, jakin badakigu gerra eta politika bata bestearen jarraian ematen dela. Era batera edo bestera deitu geuretzat ez dago alderik. Inperialismoaren aurka eramaten ari garen borrokaren bidez Estatu berreskuratuko dugu, eta hori bakerako eta askatasunerako bide bakarra da, ez dago besterik. Hain zuzen, Inperialismoak kenduko ez digun ohorezko bide demokratiko horretan geure indarrak ipiniko ditugu.

Aldakuntza politikoa emateko garai egokia Franko hil eta ondorengo urteak izan ziren. Espainiako estatuan hutsune politikoa, egoera internazionala aldaketa eske eta herria kalean zegoenean gerra garaian geundela esan genezakeen. Horrelako aukerak historian gutxi izaten dira. Horrelakoetan herriak gidaritza politikoa, geure herriak izan ez zuena, argia izan behar du. Gerra garaiak horrelakoak izaten dira. Gerrak ez du luze irauten. Horrelakoetan ematen da aldakuntza. Geure kasuan ez zen eman. Espainiako estatuak jasan izan zuen hutsune politikoa, herriko klase politikoaren laguntzarekin, berreskuratu zuen. Inperialismoa lehengoa da. Gerraren baldintzak, ohiko eta logikoa denez, politikora eramaten ditu. Egoera politikoa berria gerra horren isla eta ondorioa besterik ez da.

Garaileak, -Espainiako estatuaren kasuan berdinak dira- bere indarra erakundetu eta legitimatzen saiatzen dira, egoera politiko berri bat ezarri. Oraingo balizko “akordioak” ere jadanik indarrean dagoenera eramango gintuzke. Jakin baitakigu, gatazkarik edo botere aldaketaren aukerarik ere ez dela egon. Franko hil eta ondorengo egoera ez baita urritik eman ere. Beraz, aurreko egoera politikoak jarraituko du oraingoan ere. Eta kolaboratzaileak horretan parte hartuko dute, esanez: bide horrek, nahiz eta gerratik sortua eta indar militarrean finkaturik egon, ez dakigun zelako helburuak lortzeko aukerak ematen dituela. Guk badakigu, ordea, oraingo “ akordioa ” ere beste errendizio bat dela, barregura ematen duena guretzat ariko ez balirateke.

Horiek aitortu behar lukete, politika barneko gerraren azala hutsa baino ez dela. Politikak bere baitan biolentzia ez izatearen ideia hori inperialisten eta kolaboratzaileen engainuak dira. Akordio zaleak, halabehar eta, esango digute daukagun apurra (hau da, zapalkuntza...)

hitza, arrazoa eta elkarrizketaren bidez lortuak izan direla. Herriak, aldiz, Franko hil eta ondorengo mugimenduetan apustu handia egin zuen, eta, oraindino, ordaintzen ari gara klase politiko horren traizioa. Beraiek dioten zerbait hori, zerbait bada, eurentzat baino ez da, traizioaren ordainetan jaso, hau da, herria desmobilizatu eta inperialisten bide politikora eramatearena, hain zuzen. Herriak denboraren poderioz asko ikusi eta ikasi du, eta ez ditu engainuak nahi, dagokigun Estatua berreskuratzea baizik.

Guk badakigu hitza, arrazoa eta abarren bidez engainua eta traizioa baino ez dugula jaso. Traidoreak, noski, bere burua zuritu behar dute eta horretan dabilta. Guk arrazoa badugula ez daukagu frogatu beharrik, hori ukazina baita. Baina politikan hitzak eta arrazoiak gutxi balio dute indarra ez badute berekin. Eta hori da politika edo gerra; geure kasuan, zapalkuntza beraren bi aurpegiak, hain zuzen. Burutsuena edo zuriena politikoa noski, baina biluztuz gero gerraren gordintasuna duena. Bide politiko inperialista hori oso leun agertzen bada ere oso eraginkorra da, eta zapalkuntza horretan kolaboratzaileek parte hartze handia dute. Inperialistek tankeak, ejertzitza eta abar dituzte, hau da, euren benetako indarra. Eta indar gordin hori agerian egon zitekeena estaltzeko herriko klase politikoaren laguntza dute. Inperialisten bide politikoa eurek ezarri dutela ez da inoiz ahaztu behar, eta bide hori inperialismoan integratzeko bidea baino ezta. Horrek geure herriaren erabateko heriotza ekarriko liguke. Bide horrek, kolaboratzaileek esaten dutenaren aurka, ez dakar geure indarra handitzea integratzea baizik.